

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko azaroaren 22a. IX. urtea. 2.438. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Unai Igartua Kilometroak 2013 jaiko koordinatzailea da eta Jone Urteaga Laskorain Ikastolako zuzendaria; hilabeteak daramatzate lanean. I. URKIZU

Unai Igartua eta Jone Urteaga Kilometroak 2013ko arduradunak

«Euskara ez da tresna bat, barnean bizi dugun zerbait da»

Bihar emango dituzte ezagutzera datorren urtean Tolosan egingo den Kilometroak jaiko logoa eta leloa, Leidor aretoan; aurkezpen ekitaldia «polita, laburra eta indar handikoa» izango da **2-3**

Indarkeria sexistari aurre egitea guztion ardura dela aldarrikatu dute

Tolosako Udalak eta hainbat eragilek «egiturazko neurriak hartzeko» eskatu dute; eskualdeko hainbat herritan ekitaldiak izango dira **2-3**



Tolosako Udalak eta hainbat eragilek agerraldia egin zuten, asteartean. I.G.L.

Errenta aitorpena euskaraz egiten dutenak gero eta gehiago dira

Tolosaldeko herritarren artean, aurren, euskaraz egin dutenen kopurua %21,75 igo da **6**

Gaur hasiko dira AHTaren aurkako baraualdiekin

Zizurkil, Aduna eta Villabonaren txanda da; obretara martxa eta mahai ingurua egingo dituzte **6**

Eskualdeko hainbat hautetsi saharar kanpaleketan izango dira

Senidetuta dauden herriak eta bertako proiektuak ezagutuko dituzte; sahararrei laguntzeko konpromiso berriak hartuko dituzte **7**

Pello Zelariainen askatasuna eskatuko dute, ostegunero **6**

**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**
902 402 900
www.funerariavascongada.com

TOLOSA
Kondeko Aldapa, 5
943 - 67 00 40

VILLABONA
Larrea Polg., 34 - 1
943 - 69 48 73

INKERNU
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozorroak

Urtebetez zurekin!

Gernikako Arbola 1 behea • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com

Egiturezko neurriak hartzeko eskatu dute indarkeria sexistari aurre egiteko

Eskualdeetan hainbat ekitaldi antolatuta dituzte azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna dela eta

Tolosan Emakumeon Plaza izena jarriko diote Iturritziki plazari, larunbatean

Inanol Garcia Landa

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da eta horren harira hainbat ekimen antolatuta dituzte Tolosaldean eta Leitzaldean. Tolosan agerraldia egin dute udalak, Bilgune Feministak, Denbora Bankuak, Emakume Artistak eta herriko dantza taldeek. Udaleko Berdintasun, Gazteria, Gizarte Zerbitzuak eta Kultura sailek parte hartu dute ekimenean. Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, «emakumeenganako indarkeriaren kontrako edozein adierazpen gaitzesten dugu, dimentsio orotan (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai eta sexismo mota oro

ere, arinenak eta normalizatuena barne, esaterako: sexuaren araberako rol estereotipatuak; neska eta emakumeen ikusezintasuna bizitzako hainbat arlotan, bigarren mailara zokoratuz; sexu eta ugalketa eskubideen ezeztapena; edota pertsonetikiko diskriminazioa euren sexu-aukeraren edo genero identitatearen ondorioz».

Udalak bere apustua argi duela jakinarazi du: «Sentsibilizazio, prebentzio eta hezkuntzaren arloan hainbat ekimen eta ekintza bultzatzea, kaltetutako emakumeekin, talde feministekin eta esparru horretan diharduten elkarrekin elkarlanean eta koordinaturik». Bertako ordezkariak gaineratu dutenez, «erakunde-



Tolosako Udalak eta hainbat eragilek agerraldia egin dute. I.G.L.

tatik eta, erakunde hurbilenetik, udaletik, indarkeria matxistaren kontrako ardura soziala eta politikoa gure gain hartu behar dugu, eta, horretarako, norberaren aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak berrikusi beharko ditugu».

Bilgune Feministak indarkeria sexistara egiturezkoa dela azaldu du eta horren dimentsio guztiak kontuan hartuko dituen neurriak eta borondate politikoa exijitu du. «Ez diezagutela gobernuetatik azaleko erreformarik eskaini, ez eta lege hutsalik ere, eta a-

gutxiago emakumeok oraindik menpekoago edo delinkuente bilakatuko gaituen erreforma planik, abortuarenaren gisara», esan du Bilgune Feministak. «Feministok aldateta errealak nahi ditugu, egiturezko planteamendu berritzaileak behar ditugu, eta

↓ Egitarauak

ALEGIA

IGANDEA, AZAROAK 25

- 18:30. Kontzentrazioa plazan.
- 19:00. Neskerazantzerkia kultur etxean.

ASTELEHENA, AZAROAK 26

- 19:10. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako adierazpen instituzionala mozioa irakurri eta onartuko da udal batzarrean.

ANOETA

AZAROAREN 20tik 27ra

- Erakusketa. Kiroldegiko sarrean, Mugarik Gabe Elkartearen erakusketa, indarkeria sexistaren aurkako kanpainenkin.

OSTIRALA, AZAROAK 23

- 18:00. Mikelasagasti auditorioan, *La luna en ti, un viaje a las raíces de la feminidad y de la vida* dokumentala emango dute, Jone Arrospidekin dinimizaturik.

OSTIRALA, AZAROAK 30

- 22:00. Mikelasagasti auditorioan, *Pink saris* filma. Proiektzioa jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpitituluekin emango da.

LEITZA

OSTIRALA, AZAROAK 23

- 11:00. Leitzako plazan mahai informatiboa eta txapak egiteko aukera.

LARUNBATA, AZAROAK 24

- 10:00-13:00. Erteta eskolako gimnasioan, emakumeentzako ahalduzko tailerra. Ondoren luntxa egongo da. Teresa Martinezek emango du tailerra. Izena emateko Maimurren edo Gizarte Zerbitzuan, azaroaren 23a baino lehen.

IGANDEA, AZAROAK 25

- 12:00. Lopeneko atarian elkarretaratzea, *Beldurrak gurekin jai: Erresistentzia feminista* lelopean.
- 16:00. Pala txapelketa azkarrak Leitzako plazan. Izen ematea 15:30ean, plazan bertan.

ASTEARTEA, AZAROAK 27

- 19:00. Emakumeen kontrako

indarkeria Nafarroan hitzaldia Leitzako udaletxean. Indarkeria Sexistaren Aurkako Emakumeen Plataformako Miren Conde eta Amaia Zubieta kideek emango dute.

TOLOSA

OSTIRALA, AZAROAK 23

- 22:30. Pailaztana klown taldearen *Neskeraz* emanaldia kultur etxean.

LARUNBATA, AZAROAK 24

- 12:30. Tolosako Dantza taldeek antolatutako Beldur Barik Flashmoba Trianguloan. Soinean lila koloredun jantziren bat eramatea gomendatzen da.
- 13:30. Giza katea egingo dute

Triangulotik Iturritziki plazara (herriguneko tren geltokiarren ondoan).

- 14:00. Iturritziki plazari izen aldatzea: Emakumeon Plaza plaka orroigarriaren estalgabetzea, emakume guztien omezez eta matxismoaren biktima izan diren oroimen gisa.
- 22:30. David Slade zuzendariaren *Hard Candy* filma Leidor Aretoan eta Viniciane Millereau emakume zuzendariaren *Barbie Girls* film laburra.

OSTEGUNA, AZAROAK 29

- 19:15 eta 21:45. *La extraña* filma, Feo Aladag emakume turkiarrak zuzendutakoa.

VILLABONA

IGANDEA, AZAROAK 25

- 19:30. Elkarretaratzea Malkar plazan.
- 20:00. *La fuente de las mujeres* filma, Gurea aretoan. Ondoren, solasaldia Yolanda Cervero psikologoarekin, familia arteko indarkerian aditua.

ZIZURKIL

OSTIRALA, AZAROAK 23

- 19:00. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna-ren harira, elkarretaratzea egingo dute Joxe Arregi plazan.

↓ Iragarki laburrak

SALGAI

Etxebizitza. Etxebizitza salgai Alegian (garajea barne). 8 urte eta oso egoera onean. Sukaldea eta bi komunak guztiz ekipatuta, hiru logela eta egongela ditu. Guztia kanporantz begira eta oso eguzkitsua da. Igogailua du zuzenean garajera jaisteko aukerarekin (prezioan bi plaza-tako garajea barne dago). Interesatuak 609787551 telefono

zenbakira deitu, edota alegi2012@yahoo.es helbidera idatzi.

LANESKAERAK

Etxeko lanetarako. Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Deitu 943 696882 edo 606 521992 telefono zenbakietara.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

hauen gainean guk eta hemen erabaki nahi dugun», gaineratu du.

Bide horretan, Bilgune Feministak «ezinbestekotzat» jotzen du jendarteko eragile zein norbanakoen artean eztabaida soziala egitea: «Erantzukizuna guztiona baita, eta gatazka honi amaiera emateko pausuak bultzatzea guztioi baitagozkigu, gu ere indarkeria eta botere harremanen egituraren parte garen heinean».

Egoera sozial eta ekonomikoaren bilakaerak emakumeak «are tesitura larriagoan» ipini dituela nabarmendu du Bilgune Feministak. «Eskubide laboral zein sozialen murrizketek pentsaezinak ziren atzerapausoak suposatzen dituzte indarkeria sexista gainditzeko urte luzez urraturiko bideetan», gaineratu du eta «herritar kontzientziatu eta feminista guztiei kalera irten eta egoera gaitzesteko» deia zabaldu du.

Plazari izen aldaketa

Larunbatean egingo dituzte ekitaldi nagusiak Tolosan. Iturritxiki plazari, herriguneko tren geltokiaren ondoan dagoenari, Emakumeon Plaza izena jarriko diote. Emakume guztien omenez eta matxismoaren biktima izan direnen oroimenez, plaka oroigarriaren estalgabetzea egingo dute. Horrez gain, Naiara Delgado artistak osatu berri duen murala erakutsiko da.

Plazaren berrizendapenaren ekitaldiaren aurretik, giza katea egingo dute Triangulotik hasita, *Beldurrak gurekin jai! Erresistentzia feminista* lelopean. Hain justu, horren aurretik, Trianguloan Beldur Barik flashmoba egingo dute. Bere prestaketan herriko dantza taldeek parte hartu dute: Udaberri dantza taldeak, Alurr dantza taldeak, Izaskun Arriolarren dantza eskolak eta udal dantza tailerreko koordinatzaile Katixa Pereak. Herriarren parte hartzea eskatu dute, eta soinean lila koloredun jantzi bat eramateko zehaztu dute. Gaur, 19:00etan, entsegua egingo dute nahi duen guztiarentzat Beotibar frontoian. Flashmoberako Juantxo Zeberioaren *Yau Samayaye* bestia erabiliko dute.

Filmak eta solasaldiak

Tolosaz gain, eskualdeetako beste zenbait herritan ekitaldiak antolatzen dituzte, Alegian, Anoetan, Leitzan, Villabonan eta Zizurkilan, hain zuzen. Elkarretaratzeaz gain, hainbat lekutan filmak ikusi eta solasaldiak antolatzen dituzte. Udalek antolatutako ekintzak izan dira, eta Villabonan, esaterako, Hutsunea Betez emakumeen taldeak bultzatu ditu. Leitzan egingo direnak Leitzaldeko Bilgune Feministak eta Leiza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuak antolatzen dituzte. Antolatzaile guztiek ekitaldietan parte hartzeko deia egin dute.



Tolosako Udalak harrera egin zieten, atzo, Arabar Errioxatik etorritako bisitariei. I.G.L.

Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidearen kideak, Tolosan

Udalak harrera egin die bisitariei; Idiakenez jauregia eta Gorrotxategi Konfiteri Museoa bisitatu dituzte

I. Garcia Landa Tolosa

Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea egitasmoak bisita egin dute Tolosara. Hainbat alorretakoak izan dira bisita egiten, bai udal erakundeetako kideak, bai upategi, landaetxe, arandegi eta

beste enpresa batzuetako ordezkariak ere. Juan Manuel Lavin egitasmoren lehendakariak azaldu duenez, «bidaia enogastronomikoa egitea pentsatu genuen, Gipuzkoara eta Bizkaia, eta bakoitzean bertako erreferentziak bisitatu nahi ditugun». Tolosa beraiantzat oso garrantzitsua dela esan du Lavinek, «enogastronomian egiten diren ekintzetatik». Bestalde, ardoak eta txokolateak izan dezaketek «harreman interresgarria» aipatu zuen.

Hasier De los Rios zinegotziak harrera egin zien bisitariei udale-

txean. Eskerrak eman zizkien Tolosa bisitatzea aukeratzeagatik, eta gogora ekarri zuen Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidearen egitasmoa egiten ari direnetik ikasten ari direla Tolosaldean.

Harrera jaso ondoren, Idiakenez jauregia bisitatu zuten arabarrek, bertan Felix Maria Samaniego bizi izan baitzen, jaiotzez guardiarra eta ipuingile izateaz gain, Tolosako alkatea izandakoa. Gero Gorrotxategi Konfiteriaren Museoa bisitatu zuten eta, azkenik, babarrun jatea egin zuten.

Azken egunak garraio publikoaren plan berriari ekarpenak egiteko

Parte hartu nahi duten herritarrek Tolosaldea Garatzenera edo norberaren udaletara jo dezakete

I. Garcia Landa

Tolosaldeko garraio publikoari buruzko plan berria osatzen ari dira. Gipuzkoako Foru Andundiak idatzi du aurreproiektua eta herritarrek ekarpenak egiteko epea zabaldu du, eta hilaren 25ean bukatuko da horretarako epea. Tolosaldea Garatzen ari da prozesua dinamizatzen eta herritarrek egindako ekarpenak «bereziki oso interesgarriak eta eskertzekoak» izaten ari direla azaldu dute.

Parte hartzeko bi aukera daude. Batetik Tolosaldea Garatzenera bertara joan daiteke edo www.tolosaldeagaratzen.net hel-



Abatzisketan herri bilera egin dute garraio publikoaren inguruan. HITZA

bidean sartuz. Bestetik, norberaren udalera zein udalerraren webgunera jo daiteke ekarpena egiteko. Tolosaldea Garatzenen eskualdeko autobus zerbitzuak egingo dituen ibilbideen mapa eta ordutegiak daude eskuraga-

ri. Udaletan, herri bakoitzetik igarotzen den autobus zerbitzuaren ibilbideen mapa eta ordutegiak buruzko informazio zehatza dago. Parte hartzaileen artean zenbait sari zozkatuko ditu Tolosaldea Garatzenek.

Igandean izango da klaratarren laugarren mendeurreneko azken ekitaldia

I. Terradillos Tolosa

Tolosako klaratarren komentuak laugarren mendeurreneko ekitaldietan azkena burutuko du igandean, hilaren 25ean, ospakizunei amaiera emanez. 17:00etan esker emate meza egingo dute. Elizbarrutiko gotzainak zuzenduko du eukaristia, eta Juan Maria Iarduia Arantzazuko frantziskotarren probintziako ministroak, Juan Krutz Mendizabal pastoraleko elizbarrutiko bikarioak, talde erlijioso batek eta zonaldeko apaiz batzuek lagunduko diote. Juan Joxe Muniain Tolosako San Frantziskoko aita nagusiak eta Santa Maria parrokiko koroak ere parte hartuko dute. Lagunak eta familiak gonbidatu dituzte ospakizunera eta ondoren egingo duten luntxera.

→ Laburrak

Tolosako elkarretaratzea bertan behera utzi du EHEK

TOLOSA › Euskal Herrian Euskaraz elkarteak jakinarazi duenez, larunbaterako, hilak 24, Tolosan aurreikusita zuten elkarretaratzea bertan behera geratu da, antolakuntzan izan dituzten arazoengatik.

Festa antolatu dute DBH4koek iganderako

IKAZTEGIETA › DBH4 mailako ikasleek Kulturaldiaren barruan, igandean festa egingo dute herriko plazan. 12:00etan, bigarren eskuo azoka izango da; 13:00etan, taloak, ogitartekoak, gaztainak eta postreak dastatzeko aukera eskainiko dute. Era berean, argazki zaharren erakusketa izango da eta *Ezetz asmatu zeintzuk diren* lehiaketa egingo dute, 14:00etan.

‘Gazta zati bat’ dokumentala, udaletxean

ALTZO › Elordi Kultur eta Kirol elkarteak antolatuta, bihar II. Begiraduz zinema emanaldiaren barruan *Gazta zati bat* dokumentalak izango du lekua, 19:00etan, udaletxeko bilkura aretoan. Ondoren Jon Maia zuzendari eta bertsolaria bertan izango da galderak erantzuteko. Gero, Elordi elkarteak, 21:00etan, bertso afaria Jon Maia eta Amaia Agirrekin.

Unai Igartua eta Jone Urteaga > Kilometroak 2013ko arduradunak

Laskorain ikastolan hilabeteak daramatzate jada, datorren urriaren 6ko Kilometroak jaia prestatzen. Bihar, Leidor aretoan aurkeztuko dituzte jakinmina piztu duten leloa eta logoa.

«Ikastola herri ekimenez sortu zen, eta herritarrak inplikatu nahi ditugu»

Itzea Urkizu

Laskorain ikastolako zuzendaria da Jone Urteaga (Tolosa, 1958), eta Unai Igartua (Ikaztegieta, 1978), berriz, 2013an Tolosan ospatuko den Kilometroak prestatzen ari da, koordinatzaile lanetan.

Sakramentinoetako eraikin berria finantzatzea izango da helburuetako bat, hiru lerroko ikastola izatetik maila bakoitzean lau gela sortu behar izan baititu Laskorainek. Hilabeteak daramatzate lanean, eta bihar ikusiko du argia, urte osoan lau haizetara ibiliko den leloak.

Bihar aurkeztuko duzue KMK 13, baina aspaldi hasi zineten lanean.

Jone Urteaga: KMK Tolosan ospatzeko eskaera egiten duela sei urte hasi ginen, beharra aurreikusuten baikenuen, eta azkenean, iaz esleitu ziguten. Koordinatzailearen profila eta helburuak zehaztu eta gero, hausnarketekin urtarrean hasi ginen.

Unai Igartua: Urte hasieran bilerekin hasi ginen. Leloa eta logoa, berriz, maiatzerako atera genituen, arropa dela eta.

Helburu ekonomikoaz gain, zein jomuga izango du Tolosako KMK 13-k?

J.U.: Helburuak nahiko argi genituen. Tolosan euskararen erabileraren aldeko hautua zabaltzeko esfortzu bat egitea, eta euskaraz bizi garela eta bizi nahi dugula zabaltzea izango da helburu nagusia. Halaber, Laskorain herri onura duen elkarte kooperatiboa da, eta herri ekimenez sortu zen, beraz, herritarrak proiektu honetan inplikatu nahi ditugu.

U.I.: Datuen arabera, euskararen ezagutza igo egin da Euskal Herrian, baina erabilera ez. Hausnarketa bat merezi du honek, eta aurten eman dezakegun pausoa handia edo txikia izanda ere, horri begira emango dugu.

1977an hasi zen Kilometroak. Orduraz geroztik egindako lanak euskararen normalizazioan nola eragin du?

J.U.: Esparru askotan egin da lana euskararen normalizazioaren alde, baina ikastolen mugimenduan lan asko egin du. Tolosan ere, gure ikastolak utzi du arrastoa; horren adierazle dira hizkuntza neurketak, eta erabileraren bilakaera oso argia. Ikastolak asko jarri du bere aldetik emaitza horiek lortzeko, batez ere, 80ko



Euskara ez da tresna bat, barnean bizi dugun zerbitu da; euskaldunak gara euskaraz dakigulako»

JONE URTEAGA
Laskorain ikastolako zuzendaria

«Euskara, bihotzean izatetik areago, erabili egin behar dela helaraziko du leloak»

UNAI IGGARTUA
Kilometroak 2013ko koordinatzailea

hamarkadatik hona, Euskaraz Bizi proiektuarekin.

U.I.: Kilometroak ospatu izan den herrietan, euskararen iraultza moduko bat gertatu izan da beti. Eskualde guztia sartzen da proiektuan, eta mezu bat edo beste izan, euskararen inguruko mugimendu bat da.

Eta zein da giltzarria, ikastolen hezkuntza ereduari?

J.U.: Gure ikurra beti izan da Euskaraz Bizi proiektua. Ez dakit beste sekreturik baden, baina sentitzen eta ikusten dugu, gure ikasleek euskara erabiltzen dutela



ITZEA URKIZU

ikastolan eta kanpoan; euskaraz bizi dira.

U.I.: Laskoraingo langileen inplikazioa nabarmena da. Kooperatiba izatera du, eta irakasleek ikastolaren zati sentitzen dira.

J.U.: Euskara barneratuta dauka eta hori helarazten dugu. Argi-txoren bidez, haurrei, txiki-txikitatik, euskararen altxorraren magia sentiarazten diegu, eta hor dago gakoa. Euskara ez da tresna bat, euskara barnean bizi dugun zerbitu da; euskaldunak gara euskaraz dakigulako.

Kilometroetara itzuliz, laguntza eta elkarlana ezinbestekoak dira.

U.I.: Aurreikuspenen arabera, urriaren 6rako, 1.500 edo 2.000 pertsona inguru beharko ditugu. Baina urtea luzea da, eta deialdia egin nahi dugu, jendeak izena eman dezan. Bihartik aurrera www.kilometroak.net ataria martxan izango da, eta izena eman ahal izango da batzordeetan.

Orain arte 13 batzorde izaten ziren arren, 14.a sortu duzue, ikasleena.

U.I.: Beti galdetzen da, KMK norena ote den, eta Tolosa eta eskualde osoarena da. Laskorain ikastola norena den ere begiratu behar da: gurasoena, irakasleena eta ikasleena da. Ikasleek ere Kilometroaren zati izan behar dute, eta

beraz, ikasle batzorde bat osatzea erabaki dugu. Finean, gauzak zergatik ezin diren antolatu jakitea nahi dugu. Erabaki batzorde guztietan parte hartuko dute, eta Kazkabarra aisialdi taldeko bi begirale izango dituzte laguntzeko.

Bihar plazaratuko duzen leloak zer transmitituko du?

U.I.: Hasieratik erabaki genuen, euskararen erabilerarekin lotura izango zuela. Alde egin nahi izan dugu, azken urteotan erabili izan diren interneteko eta sare sozialeko ikurretatik. Euskara, bihotzean izatetik areago, erabili egin behar dela helaraziko du leloak.

J.U.: Ausarta da, eta oso-oso zuzena.

Kantuak ere sortzen du jakinminik. Zertan da prozesua?

U.I.: Inauterietarako prest izatea da asmoa. Lehiaketarik ez dugu egingo, eta Tolosan bertan sortzea eta ikastolak parte hartzea nahi dugu. Zenbait urtetan liskarrak sortu izan ditu honek, eta espero dugu inor kanporatuta ez sentitzea; guk argi izan behar dugu nahi duguna, eta horren bila joango gara.

Bihartik aurrera jarduera gehiago aurreikusi dituzue?

U.I.: Denda irekiko dugu, Korreo kalean, etzi. Asteleheneetatik larunbatera zabalik izango da, 10:00etatik 13:00era, eta 17:00etatik 20:00etara. Urte osoko jarduerekin, berriz, ideien zerrenda luzea dugu, eta orain ari gara guztia zehazten.

Bi saio izango dira bihar, Leidorren. Zer esango zeniekete tolosarrei?

J.U.: Etor daitezela. Politika izango da, laburra eta indar handikoa, ondo pasako dute. Morboa nahi duenak, irakasleok desfitean-eta ikusteko aukera izango du[barreak]. Merezki izango du, behinik behin, barre pixka bat egiteagatik.

sarrerak

zozketa
Kilometroak 2013 - aurkezpen ekitaldia
2 sarrera pare

KILOMETROAK 2013 TOLOSA
HEMEN DA!
4 PERTSONEN ENTELAKA
AZAROAK 23 DITZALA
18:00ETAKO SAIORAKO SARRERA PARE BAT
20:00ETAKO SAIORAKO SARRERA PARE BAT

*azaroak 23 / Tolosako Leidor aretoa
18:00etako saiorko sarrera pare bat
20:00etako saiorko sarrera pare bat

Zozketan parte hartzeko deitu
osteguna 14:30ak baino lehen
943 65 56 95 telefono zenbakira.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Mauka GALERKO ESKAINTZA

Kataluniako
menurik goxoa
Donostiako Gros
auzoaren erdi-erdian

MAUKA PETIT TABERNA
Barragan, 2
41011 (SA) ZARAGOZA
Tel. 943 372 002

Presioa
32€

www.mauka.eu

berria

Publierreportajea →

Elvira Zapata da Tolosako Gernikako Arbolan dagoen Inkernu jantzigintza dendako arduraduna. Urtea bete berri dute.

Lanerako grina, Inkernun

Denetarik egiten dute Tolosan dagoen Inkernu jantzigintza dendan; arropak moldatu, eraldatu, konpondu... Baina Inkernu ez da konponketa denda soila, sormenak leku asko hartzen du, izan ere, Elvira Zapatak sormena maite du. Kolonbiarra da eta Nafarroan 13 urte eman eta gero, orain bi urte iritsi zen Tolosara. «Oso gustura nago hemen», esan du, euskaraz. Izan ere, euskara ikasten ari da, eta oraindik ere latsa pixka bat ematen badio ere, bezeroak euskaraz egitera animatu nahi ditu, «dena ulertzen dut, baina hitz egitea falta zait, horretan gehiago saiatu behar naiz». 30 urtetik gora daramatza josten eta esperientzia zabala du jantzigintzan.

Urtebete lanean

Inkernu jantzigintzak urtebete egin berri du, eta bertan egiten dituzten sormen lanak mimatu egiten ditu jostunak, hauek neurria eginda daudenez, gorputzean perfektu geratu behar baitira, «gorputzaren bigarren azala izango balira bezala», esan du. «Arropak konpontzen ditut, betikoa, galtzetako baxua hartu, kremailerak aldatu, soinekoen baxuak konpondu... baina gustukoen dudana sormena da. Esaterako, andregaien soinekoak egiten ditut neurrira eta asko gustatzen zait; hainbat modelo ikusi, aukeratu, aztertu, marrazkia egin... eta jostera», azaldu du.

Andregaien soinekoek gain, hala ere, bestelako arropak ere egiten ditu neurrira; festetarako soinekoak, taila bereziak, jakak, berokiak... «bezeroak nahi duen

guztia», dio irribarretsu. «Askotan bezeroek etxean beste denboraldi batzuetako arropak dituzte, eta berritu eta erabili nahi dituzte: lepoa aldatu, mahukak eraldatu... Jantzi guztiak goitik behera eraldatzen ditut, bezeroak nahi duen moduan utziz», dio.

Artzain-andre jantziak

Inkernu jantzigintzan, hortaz, neurrirako era guztietako jantziak egiten dituzte, baita artzain-andre jantziak ere.

«Oihal eta modelo asko erakutsi ahal dizkiet bezeroei, eta gustuko jantziak egin. Bezeroak nahi duen moduan egiten ditut, eta noski, ez bakarrik artzain-andreen jantziek, guztiek, akabera bikainak dituzte, txukunak. Umeen kasuan, hauek hazi egiten direla hartzen dut kontutan, eta jantzia 3 urteko ume bati egiten badiot hau 8 urte bete arte balio izateko egiten dut», esan du jostunak.

Artzain-andre jantziarako eta beste edozein jantziarako ere, eskuz egindako marrazkiak egiten ditu; lauburuak, eguzki loreak...

Eta oso garrantzitsua den beste ezaugarrikerik ere badu jantzigintzako dendak; oihalen erakusgarriak dituela, denboraldikoak, oihalak bertatik bertara ikusi ahal izateko. «Dendan ez dagoena hala ere, eskatu eta bi edo hiru egunetan dendan izaten dut», azaldu du.

Gogo biziz

Debagoian dezente erabiltzen den hitz bat aukeratu zuen Elvira Zapatak dendaren izena aukeratzeko: Inkernu. Grina edo gogo bizia esan nahi du, eta denda irekitzerakoan lortu nahi zuena adierazten du: «Nahi nuena adierazten du. Lan asko egin dut leku eroso eta polit bat egiteko, jendea etorri eta hemen nahi duena eskatzeko, erosotasunez, eta horretarako gogo biziz egin dut lan, horregatik Inkernu izena».



Elvira Zapata da Inkernu jantzigintza dendako arduraduna. R. CALVO



Inkernun egiten diren sormen lanetako batzuk, tartean eskuz egiten dituen marrazkiak. HITZA



Andregai, artzain-andre, eta jaunartze jantziak ere egiten ditu. HITZA

↓ Datuak

INKERNU JANTZIGINTZA

- **Helbidea.** Gernikako Arbola, 1-behea (Tolosa).
- **Telefona.** 943 24 43 64.

↓ Zebitzuak

GIZABANAKO, ENPRESA ZEIN DENDENTZAT EGITEN DUTE LAN

- Neurrira egindako jantziak.
- Arropa taila bereziak.
- Festetarako soineko zein jantziak.
- Emaztegai jantziak.
- Jaunartzeetarako jantziak.
- Artzain-andre jantziak.
- Inauterietarako mozorroak.
- Era guztietako konponketak.
- Era guztietako eraldaketak.
- Kirola egiteko arropa elastikoak.

Tolosaldean errenta aitorpena euskaraz egiten dutenen kopurua %21 igo da

‘Aurten noraino?’ kanpainarekin lotu dute igoera; hurrengo urtean ere errenta euskaraz egitea bultzatuko dute

Asier Imaz

2012an gora egin du errenta aitorpena euskaraz egin duten herritarren kopurua. Guztira, 5.227 lagun izan dira, iaz baino 681 gehiago, %21,75eko igoerarekin. Kopuru horietan, segur aski, eragina izan du *Aurten noraino?* kanpainak. Izan ere, azken urteetan bezala, Tolosaldeko 17 udalek, Galtzaundi Euskara Taldeak eta Kontseiluak kanpaina egin zuten, herritarrei deklarazioa euskaraz egiteko eskatuz.

Azken urteetako datuak kontuan hartuta, goranzko joera nabarmena zen, horren ondorioz jarri zioten lelo hori: *Aurten noraino?* Urtez urte gorantz doa kopurua: 2010ean 4.000ko langa gaudituz zen eta, 2011n, 5.000koa gaudituz da. Martxa honetan, hurrengo urtean 6.000 baino gehiago izatera iristea espero dute kanpainaren antolatzaileek: «Goranzko joera, gainera, orokorra da. Eskualdeko 28 herrietatik 24tan handitu egin dira euskarazko deklarazioen kopuruak, eta bitan berdin geratu dira».

HERRIA	2010		2011	
	Euskaraz		Euskaraz	%
Orexa	30		34	%54,84
Amezketza	162		200	%38,76
Aitzo	71		79	%37,98
Baillarain	20		24	%37,50
Lizartza	126		138	%35,57
Aikiza	57		68	%35,42
Berastegi	162		197	%35,17
Abaltzisketa	47		53	%33,57
Berrobi	79		91	%32,27
Bidegolan	66		82	%31,30
Leaburu	65		65	%30,95
Albiztur	58		57	%30,64
Alegia	245		271	%30,42
Orendain	28		27	%30,34
Aduna	61		74	%30,20
Ikatzegieta	58		71	%28,74
Elduain	36		36	%27,69
Asteasu	195		213	%27,44
Belauntza	38		41	%26,00
Anoeta	223		243	%24,70
Larraul	17		27	%22,88
Hernalde	42		41	%21,47
Ibarra	398		426	%18,41
Zizurkil	232		271	%18,09
Irura	144		158	%17,38
Tolosa	1.438		1.783	%17,22
Villabona	450		477	%15,24
Gaztelu		Et. dago datuak		Et. dago datuak

Kanpainarako hainbat baliabide erabili zituztela azaldu dute: «Esku-orriak banatu ziren etxez etxe, prentsan iragarkiak jarri ziren, eta Tolosan, autobusek ere eraman dute kanpainaren aldeko mezua. Gainera, Tolosaldeko udalako eta euskalgintzako ki-deek agerraldia egin zuten, kan-

painari sostengua ematen ziotela adierazteko».

Emaitza onak izan direla ikusita, eragileek elkarlanean jarraitzeko borondatea azaldu dute, eta, ondo bidean, hurrengo urtean ere errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina bultzatuko dutela iragarri dute.

Pello Zelarainen askatasuna eskatu dute, berriro ere

Euskal presoaren askatasuna eskatzeko, ostegunero bezala, gaur ere elkarretaraztea egingo dute

A. Imaz Amasa-Villabona

Pello Zelarain euskal presoaren lagun, senide eta herritarrek, bere egoera salatzeko eta askatasuna exijitzeko eskutitza idatzi dute. Modu horretan, euskal herritar guztiei billabonatarra bizi-tzen ari den egoera azaldu nahi die: «Uztaitetik gaude Pello etxean izan behar duela entzuten, baina egikaritzen ez den errealitate maltzurak, Pello espetxean mantentzen du, Villabonatik 1400 kilometrotara, 65 urte betetzear, espetxe baldintza oso gogorretan».

Zelarainek 26 urteko espetxealdian lortutako errendizio edo zigor murrizketak daude aferaren erdian. Gertukoan esanetan, Espainiako Auzitegi Nazionalak murrizketa horien aitorza egin ondoren, Zelarain aske uztea bes-

terik ez zuen egin behar Espetxe Zuzendaritzak. Baina honek gauzak argi ez zeudela erantzun zuen. Berriro, Espainiako Auzitegi Nazionalera joan zen afera, eta honek, aurrekoan bezala, billabonatarri eman zion arrazoia. Egun, ordea, Pello Zelarainek espetxean jarraitzen du.

Borroka juridiko soila, borroka politiko bilakatu dela salatu dute Zelarainen herritarrek: «Nola da posible, arlo juridikoan goreneta-koa den epaitegi baten epaia Espetxe Zuzendaritzak ezbaian jar-tzea?». Erantzuna argi dute: «Mendeku goseak ez du amaiera-riko».

Ostegunero, 19:00etan

Pello Zelarain Villabonara eraman arte borrokan jarraituko dutela azaldu dute euskal presoaren lagunak: «Pello maite dugu eta beti maiteko dugu. Ez dugu amasarik etengo bera etxera ekarri arte, bitartean, ostegunero, 19:00etan geldituta, Gurea zinema paretik bere etxe atariraino, isilean, bere askatasuna eskatzen jarraituko dugu. Muxu Pello, maite zaitugu!».

AHTaren aurkako baraualdia egingo dute hiru egunez

Zizurkil-Adunako obretara irteera egingo dute Joxe Arregi plazatik abiatuta, 17:00etan

A. Imaz

Joan den azaroaren 10az geroztik, AHTaren aurkako Mugitu! desobediencia mugimendua baraualdiak egiten ari da, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan, aste bete-ko barau-txandak eginez. Hiru astetako baraualdi horren bidez, AHTak platera hutsik uzten die-tela salatu, eta desobediencia zi-bila eskubide izatetik betebeharr izatera pasatu dela aldarrikatu nahi dute.

Tolosaldean gaurtik larunbatera bitarte egongo dira barau-

↓ Egitaraua

GAUR, AZAROAK 22

■ **17:00.** Joxe Arregi plazatik abiatuta, Zizurkil-Adunako obretara martxa.

■ **18:00.** Villabonako balio aintzako gelan, prekaritatearen inguruko mahai inguruak.

BIHAR, AZAROAK 23

■ **17:00.** Anoetako plazan.

■ **18:00.** Tailerra, *Eskubideak izateko eskubidea* Anoetako Gaztetxean.

dian, eta denbora horretan, AHTaren ondorioz, desagertzeko arriskuan dagoen Hernio mendi magaletik isurtzen den Dama-Iturriko ura edango dute.

■ **20:00.** Isuo Sasia eta Arrutiko Intxaurrak kantautoreak Anoetako Gaztetxean.

AZAROAK 24, LARUNBATA

■ **11:00.** Tolosako Trianguloan hitzaldia: *Elikadura burujabetza* EHNEko Pedro Alberdi teknikariaren eskutik. Ondoren, nafarrei lekuko aldaketa.

■ **13:00.** Ipuin kontaketa, Kontu-kantoi taldearen eskutik.

■ **Ondoren.** Salda banaketa egingo dute.

Mugitu! mugimendutik eskualdeko herritar guztiak gonbidatu dituzte baraualdiarekin bat magaletik isurtzen den Dama-Iturriko ura edango dute.

Irudia • Villabona-Zizurkil



ENGLISH CEREMONY JAIA

Ikastea eta ongi pasatzea posible da, ez daude elkarren artean borrokan. Iragan astean, Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolako LH-5. mailako ikasleek horretaz jabetzeko aukera izan zuten, jai giroko ekimenaz gozatu baitzuten. Ikastetxetik urrun joan gabe, gelan bertan, English Ceremony-a ospatu zuten jai giroan eta mo-zoroen laguntzarekin. Ikastolatik azaldu dutenez, ikasleek ederto pasa zuten. HITZA



Tolosaldeko udaletako hainbat hautetsi, Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideekin eginiko agerraldian. I.T.

Saharar kanpalekuetara joango dira hainbat hautetsi proiektuak ezagutzera

Hango egoera bertatik bertara ezagutzeaz gain, sahararrei laguntzeko konpromiso berriak hartuko dituzte

Iñigo Terradillos Ibarra

Tolosaldeko hainbat herritako zinegotzik eta alkatek saharar errefuxiatuen kanpalekuetara bisita egingo dute. «Saharar nazioari babes politikoa adieraztea eta eskualdeko herriek bertan dituzten proiektu desberdinen nondik norakoak zuzenean ikustea» da bidaia honen helburua.

Proiektuei dagokienez, bate-tik, Ibarra senidetuta dagoen Tichla herrian burutu duten balioanitzeko zentroa bisitatuko dute; bestetik, Tolosa anaituta dagoen Bir-Lehlu herriarekin dagoen ur deposituen proiektua ezagutuko dute, eta Alegia anaituta

dagoen Hagounnia herria ere ezagutuko dute gertutik.

Zortzi lagunek taldea joango da Aljerian dauden kanpalekuetara: Ibarrako bi zinegotzi eta Villabona, Elduain, Alegia eta Orexako bana. Beraiekin batera, Tolosaldea Sahararekin elkarteko bi kide ere joango dira, «koordinazio eta antolaketan laguntzeko nahiz bertan mugitzeko erraztasunak izateko». Azaroaren 27an abiatuko dira eta abenduaren leian itzuli.

Herritarrei deialdia

Hautetsien talde hori saharar errefuxiatuen kanpalekuetara doala baliatuta, herritarrek euren laguntza emateko aukera izango dute. Izan ere, bidaiari bakoitzak 31 kiloko poltsa eraman ahal du, eta bertakoei emateko gauzeekin bete nahi dute. «Herritarren babesa eskatzen dugu, ahal duten neurrian noski, eskolarako materiala (koadernoak,

boligrafoak, arkatzak...), botilkak, gozokiak (karameluak, txikleak...) eta jantziak aipatutako herrietako gizarte zerbitzuetara eraman ditzaten», adierazi dute zinegotziek.

«Hainbeste sufritu duen eta oraindik sufritzen duen herri batekin elkartasuna adierazteko aukera dugu esku artean eta gure aldetik, bidaia hau ahal den eta probetsugarrien izan dadin gure esku dagoen guztia egiteko konpromisoa hartzen dugu», gehitu dute.

Laguntzen jarraitzea

Bestalde, Tolosaldea Sahararekin elkarteko Tolosaldeko udalei Sahararekiko konpromisoekin jarrai dezaten eta berriak har ditzaten eskatzen diete. «Era berean bidaiaren ostean herritarrei hango egoeraren berri eman diezaien eta ahal dutena egin dezatela sahararren alde eskatu nahi genieke», adierazi dute.

Gutuna

Eko Tolosako langileen salaketa

Idatzi honen bidez, Eko Tolosako Langileen Asanbladak enpresaren jarrera inposatzailea salatzen du.

Ez da lehen aldia, salmenten jaitsiera eta egoera ekonomikoa dela eta, enpresak soldatak murriztea proposatzen digula. Oraingo honetan berriz, Espainiako Estatuak onartutako erreformak erabiliz, muturreraino eraman nahi duela dirudi.

8 ordura lan egin eta 1000 euroroko soldatak edukitzea nahikoa prekariora ez balitz bezala, orain gainera, soldatak %15 jaitsi nahi dizkigute. Lanaldi berdina, soldata baxuagoarekin. Gero eta presio gehiago, langileak isilik gera gaitezen. Udako

paga extra ere ez dugu kobratu eta ez dakigu ordainduko duguten ere. Eta hori gutxi ez balitz, langileren bat kaleratuko ote duten esaten digute.

Baina Eko Tolosako langileok ez dugu horrelako jarrera inposatzaile onartuko, ez eta inongo soldata jaitsierarik onartuko ere.

Enpresak adostasunetara iritsi nahi badu, garantia minimo batzuk eman beharko ditu. Enpresak bermatu behar du ez dizkigula berriz soldatak jaitsiko, edota ez duela inongo langilerik kaleratuko. Horrelakorik bermatzen ez dugun bitartean, ez daukagu zer hitz egin.

Eko Tolosako langileok borrokan jarraituko dugu gure eskubideen alde.

■ **Eko Tolosako langileak.**

Irudia ◊ Leaburu-Txarama



GIRO POLITA AUZOLANEAN

Bederatzi lagun elkartu ziren iragan larunbatean auzolanean Leaburu bideak garbitzeko. Hain zuzen ere, herritar ugari erabiltzen duten Leaburutik Gaztelura doan mendiko bidea garbitu zuten. Giro politean aritu ziren lanean, eta amaitzean udalak eskainitako hamaiketakoarekin indarberitu ziren. Hurrengo auzolana Txaraman egin asmo dute, eta horretan ere parte hartzeko konpromisoa hartu zuten. Udalak eskerrak eman dizkie parte hartzaileei. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zelegaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldean@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

BERTAKO
HEDABIDEAK



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



ZUBELDIAK IRABAZI DU AFARIA

Tolosa&Co elkarteak azaldu duenez, Mari Carmen Zubeldiak (argazkian, eskuinean) irabazi du merkatarik elkarteak Leidor aretoan egindako Urteko Merkataririk Onenaren Galan zozketatuko

saria. Zubeldiak bi pertsonentzako afaria eskuratu du eta saria Tolosa&Co elkarteko kide den Milagros Corralek (ezkerrean) eman dio. Merkataririk Zubeldia zoriandu nahi izan dute. HITZA

Agenda

DEIALDIK

- **Aiztondo.** AHTaren aurkako Mugitu! mugimenduak antolatutako mobilizazioak gaur iritsiko dira eskualdera. 17:00etan Zizurkil-Adunako obretara ibilaldia egingo dute Joxe Arregi plazatik abiatuta, eta 18:00etan *Prekariatatea* izeneko mahai ingurua egingo dute, Villabonako erabilera anitzeko gelan.
- **Villabona.** 29. Mendi Astearen barruan, Felipe Uriartek *Juley Ladhk* emanaldia eskainiko du.
- **Tolosa.** Literatur&Art Astearen barruan, gaur, *Bilbopunk89* liburua aurkeztuko du Iker Arranz tolosarrak, 19:00etatik 21:00etara.
- **Tolosa.** Laskorain ikastolaren 2013ko Kilometroak jaiko aurkezpen ekitaldia bihar izango da *Kilometroak 2013 hemen da!* izenpean, eta bi emanaldi izango dira, 18:00etan 20:00etan. Sarrerak, 2 euroren truke, erosi daitezke Orbela eta Ikatzeta tabernetan eta baita Laskorain ikastolan ere. Logoa, leloa eta arropa erakutsiko dituzte.

MUSIKA

- **Aduna.** Xexili Eguna dela eta, gaur, 16:45ean, dultzaina eta trikiti kalejira.
- **Alegia.** Xexili Eguna dela eta, 18:00etan, Larraitx auzoan, txaranga eta tailerreko 6 eta 7 urteko haurren kalejira; Kale Beherran trikiti tailerreko 4, 5 eta 6 urteko haurrak; eta ondoren, denak batera ariko dira, plazan.
- **Altzo.** Xexili Eguna dela eta, 17:00etan eskolatik plazara kalejira egingo dute. Elizako aterpean elkarteko dira denak.
- **Anoeta.** Xexili Eguna dela eta, 18:00etan plazatik musika eskolako plazara joango dira txar-rangarekin, kalejiran. 19:30ean erretirodunen egoitzara ere joango dira emanaldia eskaintzera.
- **Ibarra.** Xexili Eguna dela eta, 18:00etan Euskal Herria kaleitik, plazarainoko kalejira; eta 19:00etan, parrokiko koruaren kalejira.
- **Irura.** Xexili Eguna dela eta, 18:00etan Labaderotik plazara kalejira, elizako aterpean eta Zahar Egoitzan geldialdiak egingo dira.
- **Villabona.** Xexili Eguna dela

eta, 18:00etan udaletik abiatuta Zentrora eta Berdura plazara, kalejira, eta Urripen eta Berdura plazan, soka txiki dantza.

- **Zizurkil.** Xexili Eguna dela eta, 18:00etan eskolatik elizara kalejira.

ZINEMA

- **Tolosa.** *Sólo es el principio* filma, jatorrizko bertsoan, gaur, 19:15ean eta 21:45ean.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Jose Luis Albisu tolosarra lanak, erretirodunen tabernan.
- **Larraul.** Koldo Jauregiaren aho soinuaren bilduma museo etnografikoan, eta Karmele Pellejoren lanak herri ostatuan.
- **Ibarra.** Felix Urrestarazuren margolana, kultur etxean.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren lanak Topic zentroan eta Guatemalako Ixil eskualdeko emakumeen inguruko erakusketa, Aranburu jauregian.
- **Villabona.** 5. Argazki Rallyko argazkien erakusketa Gurea zinemaren aretoan. Ostiralean egingo dute sari banaketa ekitaldia.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.

- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esa-

Egin HITZAko harpidedun azaroaren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

OPARI



eta...

... HITZAren harpidedunen artean **bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje geotermala (30') + jacuzzi sesioa** zozkatuko dugu



hitza info

harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info